

# ANIMALIEN BABESARI BURUZKO VII. EUSKAL JARDUNALDIAK



**BILBAO | 3 | 4 | 5 | 2014ko azaroa**  
**Bidebarrieta Liburutegia (Areto Nagusia)**  
**19:30ean**

Babeslea



Antolatzailea



Laguntzailea



Esan liteke *Animalien Babesari buruzko Euskal Jardunaldiek* beraien `adin-nagusitasuna´ betetzen dutela aurtengo edizioarekin, eta hausnarketarako eskenatoki interesgarri zein berria izaten jarraitzen dutela: hiri-fauna, animalien babesari Poliziaren lanetik ikusita, edota beti presente dagoen heziketa, elementu klabea baita balore moraleen gainean jorratzerakoan.

*Lehen Sesioan* usoak ditugu protagonistak. Bake-ikur bihurtu arren, arlo askotan pairatzen dituzte tratu txarrak: ehizan, zenbait ikuzkizun edota zaletasunetan... Hirian bizi diren eta sarri "arazoak" sortzen dituzten usoak ahaztu gabe.

*Bigarren Sesioak* oso gai erakargarri bat dakarkigu: ¿nola kudeatzen dute polizia-gorputz desberdinek animalien babesari? Horren inguruko errealidadeaz arituko dira bi gonbitatuak.

Eta *Hirugarren Sesiorako* utzi dugu beharbada faktorerik garrantzitsuenetariko bat: heziketa (hitzaren zentzu orokorrean). Jakitunek esan ohi dute "txikitan ikasi genuena garena", eta egia borobila dirudi. Esparru honetan eskarmentu handiko bikote bat daukagu mahaian.

Garai berriak bizitzen ari gara, eta paradigma zaharretako batzuk izugarritzko aldaketa batean murgilduta daude. Gauzak horrela, *animalien auzia* ezin da baztertu. Horrexegatik jarraitzen dugu pentsatzen *Jardunaldi* hauen ispirirua didaktikoa eta konstruktiboa dela guztiaren gainetik: ideiak eta iritziak trukatzea dute helburu, azken batean. Ikastea eta aldi berean elkarrekiko heziketa: hauxe da gure nahiera nagusia.

ADPA/ADBE elkarteak **AUKERA ASKEKO KREDITU BAT** emango dio *Animalien Babesari buruzko VII. Euskal Jardunaldietara* datorren UPV/EHUko irakasle orori, zeinek, bere presentziaz gain, lan idatzi erraz bat aurkeztu behar izango baitu, bertan iritzi pertsonala eta entzundakoa azaltzen dituelarik.

# astelehena, azaroak 3

## USOEI ERAGINDAKO TRATU TXARRAK

### PATRICIA FERNÁNDEZ ANDÚJAR

Industria Ingeniaria. *Energia Tekniketan* espezialista. Orain *Segurtasun Nuklearraren Kontseiluan* egiten du lan. *Zientzia eta Teknologia Nuklearrean* masterra. *Mis Amigas Las Palomas (MALP)* elkartearen presidenteordea da, eta usoek tratu txarrak jasaten dituzten arlo ezberdinak (asko ezezagunak iritzi publikoarentzat) ikasi egin ditu.

### BÁRBARA FERNÁNDEZ ANDÚJAR

Industria Ingeniaritzan lizentziaduna. *Segurtasun Nuklearraren Ikuskatzaile* du ogibide. *Albaitaritza Laguntzaile Teknikoa, Agroekologia* eta *Garapenerako Lankidetzak* arloetan ikasketak egin ditu. *Mis Amigas Las Palomas (MALP)* elkartearen presidentea. Elkarte hau iberiar *columbidaeen* eskubideak defendatzen dituen lehena dugu Espainian. 2010ean sortuta, Estatu mailan uso, usapal eta pagausoen salbatze, aholkularitza eta defentsan jartzen du arreta.



# asteartea, azaroak 4

## POLIZIA-GORPUTZAK ETA ANIMALIEN BABESA

### JERÓNIMO MARTÍNEZ

*Servicio para la Protección de la Naturaleza (SEPRONA, Guardia Zibilaren menpean) delakoari Kapitain atxikia. Zerbitzu eta Operazioen Saitetik, bere lanik garrantzitsuenen artean dago Gorputzak egiten dituen ingurumenaren babesari dagozkion ekintzak koordinatzea, animalien babesaren barne. Halaber, eta txosten teknikoak egiteko asmoz, Estatu mailan *Lurralde Unitateen* jarduera koordinatzen du.*

### ALFREDO BLANCO

*Ertzaintzaren Ingurumen eta Hirigintza Sailaren (Krimen Ikerketa eta Polizia Judizialeko Unitatearen Atal Zentrala) agente espezialista. Euskal Autonomia Erkidegoan gertatu diren animaliei eragindako tratu txarren kasurik nabarmenatariko batzuetan hartu du parte. Aipatu *Saila* (2011n sortua), agente talde batek osatzen du, eta, ingurumenarekin zerikusia duten kasuez gain, animaliei tratu txarrak eta lotutako delituak hartzen ditu.*



# asteazkena, azaroak 5

## HEZIKETA: HELBURU NAGUSIA

### CONNRY DUARTE

Zuzenbidean lizentziaduna. *Politika eta Ingurumen Kudeaketan* masterra. *Animaliak, Zuzenbidea eta Gizartean* graduondokoa. Hamabost urte baino gehiago daramatza animalien defentsaren zenbait arlotako ekitaldi desberdinetan aritzen: salaketak, baloreetan oinarritutako kontzientzia, heziketa... Eztabaida esparruetan sarritan parte hartzeaz gain, hitzaldiak ematen ditu etengabe.

### CÉSAR BONA GARCÍA

Maisua. Sari batzuk jaso ditu sorkuntza eta heziketa berrikuntzagatik. 2011ko amaieran, bere hamabi ikasleek lagunduta, animalien babeserako elkarte "birtual" bat sortu zuen, *El Cuarto Hocico*, lehen mementutik umeei beraiek zuzendariak izanik. Ekitaldi hau milaka pertsonen artean animalien aldeko konpromisoa zabaltzera heldu da. Gaur, bere nazioarteko *Children for Animals* proiektuaren bitartez, sarea handiagotzearen saiakeran dabil. Tinko eta erabat sinestuta dio hauxe: *"Umeei, bat eginda, gauzak alda ditzakete"*.

